

## A07 - Nahi duzuna izango zara

Ikasleen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko eta STEAM titulazioen parekotasunerantz aurrera egiteko, **ikastetxeak HETEL enpresako aditu bat izango du, formatu presentzian edo autonomoan**. Lanbide orientazioaren ikuspegitik, estereotipoak landuko dira **Nahi duzuna izango zara** ekimeneko material eta hausnarketa interaktibo bidez.

Kurtsoa/Maila

**3.DBH**

**4.DBH**

**1. Batxilergoa**

**2. Batxilergoa**

Datak

**2025 Urtarrila-Apirila**

Ikaskuntza-arloak

**Lanbide Orientazioa**

Jarduera formatua

**Aditua ikasgelan**

**Beste batzuk: Era autonomoan gauzatu daiteke**

Hizkuntza

**Euskara, Gaztelania**

Irismen geografikoa

**Bizkaia**

Entitatea/Enpresa

**HETEL – Euskadiko LHko ikastetxeen elkartea**

### STEM Deskribatzaileak

STEM 6

### Prestakuntza

#### Irakasle-Profesionala

HETELek bere ikasketa-eremuan ikasleekin lan egiteko behar diren multimedia-baliabideak (estekak, dokumentuak, etab.) ematen dizkie inplikaturako irakasleei.

### Jarduera gauzatzea

Jarduera egiteko, ikastetxeak aditu bat izan dezake ikasgelan edo modu autonomoan, HETELek emandako jardueraren gidan oinarrituta:

**1.FASEA.** Ikasgela osoak parte hartuko du Kahoot jokoan (esteka eta jarraibideak PDFn), ikasleak kontzientziatzeko aurreiritziekin eta estereotipoekin amaitu beharraz, STEM lanbide bat emakume-generoaren arabera aukeratzeko orduan.

**2.FASEA.** Gogoeta orokorrak eta iritzi-contrastea, Kahoot taldearen azken galderarekin lotutako bideo batetik abiatuta.

**3.FASEA.** STEAM ikasketak dituzten emakumeak protagonista dituen bideo bat, STEAM titulazioei buruz nagusiki gizonetzkoak diren genero-aurreiritziak ikasleei erakusteko, estereotipoak gainditzeko eta ikasleen artean bokazio zientifiko-teknologikoak bultzatzeko (1-2 saio).

Lana orientazioaren ikuspuntutik bideratzea gomendatzen da, ikasleak etorkizuneko ikasketak aukeratzeko erabakian gidatzeko.

### STEAM Printzipioak

P2

P3

### Integrazioa ikasgelan

Ikasleek jardueraren balorazioa egingo dute.

### Curriculumarekin lotura

Ez dira curriculum-ikaskuntzarik aplikatzen.

### Baliabideak

#### Baliabide materialak:

- Gelan aurretik eta jarduera gauzatzen den bitartean lan egiteko: erabiltzen diren material guztiak bi hizkuntzatan daude esteka honetan (euskaraz eta gaztelaniaz) Esteka: <https://hetel.eus/nahi-duzuna-izango-zara/>

#### Baliabide ekonomikoak:

- Ez dira beharrezkoak.

#### Informazio gehiago:

<https://hetel.eus/nahi-duzuna-izango-zara/>